



## IBILBIDE TEMATIKOEI BURUZKO ERANSKINA

Eskabidea web orriaren bidez **betetzeko**, [www.bizkaia.net](http://www.bizkaia.net) web orrian sartu behar da, gero Gazterian eta, azkenik, Hezkuntzako egitarauan. Egitaraua (Bizkaitik Bizkaira) aurkituta, horren gainean klik egin ostean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ikastetxeari emandako kodea sartu behar da Kode bera sartuko dugu pasahitzaren eremuan, eta, hala, eskabidea egin ahal izango dugu. Eskabidera itzuli nahi badugu zerbait zuzentzeko, prozesu berari jarraituko diogu "eskabidea" ikusi arte. Orduan zuzendu ahal izango dugu.

**Eskabideak aurkezteko epea** 2009ko maiatzaren 15ean hasi eta urte bereko irailaren 10ean (biak barne) amaitzen da. Ibilbide tematikoen adjudikazioa eta ebazpena 2009ko **irailaren 17an notarioaren aurrean egingo den zozketa publikoaren bidez** egingo dira, ikastetxeek aukeratutako ibilbide eta dataren arabera lehentasun-hurrenkera aintzat hartuta. Zozketa egin ondoren, aukeratuak izan ez diren ikastetxeak zuzenean itxaron-zerrendara pasako dira.

Ikastetxeek eskabide bat egin behar dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 3. eta 4. mailako gela bakoitzeko. Ikastetxe batek ezin izango du eskabidea DBHko **3.** mailako geletarako bakarrik eskatu, **salbu eta** ikastetxe berak **aurretik DBHko 4. mailako** geletarako eskabidea egin bada.

Eskabide batean, ikastetxe batek 3. eta 4. mailako **gehienez ere bost (5) gela** sar ditzake.

**Gutxienez hamabost (15)** eta **gehienez berrogei (40)** izango da Ibilaldi bakoitzerako ikasle kopurua.

### 2009-2010 EDIZIOAREN IBILBIDEAK ETA EDUKIAK

Honako hauek izango dira "Bizkaitik Bizkaira 2009-2010" kanpainaren ibilbide tematikoak:

- **DORRETXEAK ETA GAZTELUAK:** Galeako Gotorlekua eta Aixerrota, Getxon; Plentziako Museoa, Plentzian; Butroeko Gaztelua, Gatican, eta, azkenik, Mungia.
- **MEATZARITZA BIZKAIAN:** Meatzaritzako Museoa, Muskizen; Zugaztieta, Trapagaranen, eta, Artaza Jauregia, Leioan.
- **IKATZETIK BURDINARA** El Pobaleko Burdinola, Muskizen; "Rialia", Industriako Museoa, eta Bizkaiko Zubia, Portugaleten.
- **MITOAK ETA KONDAIRAK:** Parketxea, Areatzan; Urkiolako "Toki Alai" zentroa, Abadiñon, eta, Baltzolako kobak, Diman.
- **ADUANETAKO IBILBIDEA:** Urduña eta Orozkoko Artzainaren Museoa.
- **LEA-ARTIBAI:** Zenarruza, Bolivar Museoa, Bolibarren; Aretxinagako San Migel, Markinan, eta, azkenik, Ondarroa.



- **ENKARTERRI:** “La Encartada” museoa eta Balmasedako Museoa, Balmasedan, eta, Avellanedako Juntetxea, Sopuertan.
- **GARAIK ETA DORRETXEAK:** Ertzilla garaia, Iurretan; Muntzaratz dorretxea, Abadiñon; Etxaburu dorretxea, Izurtzan; Argiñeta nekropolia, Elorrión, eta Andra Maria eliza, Durangon.
- **BILBOREN BILAKAERA:** Bilboko udaletxea, Bilboko alde zaharra eta erdigunea, eta egungo Bilbo (itsasontziz ikusiko da).
- **ZINBIDEA:** Ertzilla dorrea, Arrantzalearen Museoa eta San Juan Atea, Bermeon; Bakearen Museoa, Gernikan.
- **BILBO TURISTIKOA** Foru Jauregia, Bilboko Arte eder Museoa eta Guggenheim Museoa, Bilbon.
- **BIZKAIAREN SUSTRAIAK** Santimamiñe haitzuloa, Kortezubin; Euskal Herria museoa, Gernikan, eta, Baleontzia interpretazio-zentroa, Bermeon.
- **KARRANTZA:** Pozalagua haitzuloa eta El Carpín parke tematikoa, Karrantzan.
- **BUSTURIA-BERMEO:** Erromatarren herrixka, Foruan; Busturiako Biodibertsitatearen Interpretazio Zentroa eta Azti Tecnalia itsas teknologiarako zentroa, Sukarrietan, eta Bermeo udalerrria bisitatzea.

**Ibilbide horien ordutegia 9:30etik 16:00etara izango da, ikasleak irteten direnetik ikastetxera heldu arte.**

Azkenik gogorarazten dugu edozer argitzeko erabil daitezkeen helbide elektronikoa eta telefono zenbakia hauek direla:

**Telefonoa: 94 406 86 56**  
**E-maila: [bizkaitikbizkaira@bizkaia.net](mailto:bizkaitikbizkaira@bizkaia.net)**